



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Igeltsero plaza betetzeko barne sustapena bidez, onartu eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda, epaimahai kalifikatzailearen izendapena eta azterketa data finkatzea.

Alkate jaunak Alkatetzaren 536/2024 Dekretua eman du, 2024ko otsailaren 8koa. Ebazpen horrek honako hau dio:

Lehenengoa: Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu Berezien Azpieskalako eta lanbide-klaseko (C2 taldea) eta 1 hizkuntza eskakizuna (ez derrigorrezkoa) duen igeltsero plaza bat (1) barne-promozio eta oposizio-lehiaketaren bidez hautatzeko, onartu eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda onartzea:

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena
*****65-L	CHERINO	GARCIA	JESUS

Bigarrena: Izangaiei 10 egun balioduneko epea ematea, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsen edo omisioen zuzenketa eskatzeko, edo behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Ezin izango da zuzendu eskabidea epez kanpo aurkezten bada, ezin izango da zuzendu, ezta merezimenduak egiaztatzeko agirietan akatsik edo omisiorik badago ere.

Hirugarrena: Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat hartuko da. Halakorik balego, baietsi edo ezetsi egingo dira, behin betiko zerrenda onartzen duen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ebazpen berri batean.

Laugarrena: Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertutak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren edo ez kontuan hartu gabe, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ez direla ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Alkatetza Lehendakaritzak dagokion ebazpena eman dezan.

Bostgarrena: Deialdiko epaimahai kalifikatzaileko kide hauek izendatzea:

— Presidentea:

• Titularra: Iñaki Bañuelos Irusta.

Ordezkoa: Cristina Alcalde Díaz.

— 1 Batzorkidea:

• Titularra: Raúl González González.

Ordezkoa: David Fernández González.

— 2 batzorkidea:

• Titularra: Francisco Sánchez Márquez.

Ordezkoa: Jose Fidel Huerga Pérez.

— IVAPeko batzorkidea:

• Titularra: Delioma Franco Cabo.

Ordezkoa: Juan Carlos González Pérez.

— Idazkaria:

• Titularra: María Andrés Rodríguez.

Ordezkoa: Ainhoa Idirin Merino.



Epaimahai kalifikatzailearen kideek ezin izango dute esku hartu, eta organo eskudunari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta izangaiek errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

Seigarrena: Oposizioko lehen ariketa non eta noiz hasiko den zehaztea: 2024ko martxoaren 21ean, 09:00etan, Basauriko Obretako Udal Brigadan (Kareaga Goikoa kalea, 88).

Zazpigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Basaurin, 2024ko otsailaren 8an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren